**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**

**25. zenbakia** **Data 2001-02-05** **1961 orria**

**3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**
ALDUNDIA - OGASUNA ETA FINANTZAK
**Urtarrilaren 23ko 21/2001 FORU AGINDUA, 216 eredua onartzen duena.**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*Urtarrilaren 23ko 21/2001 FORU AGINDUA, Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren atxikipenak eta konturako sarrerak aitortu eta ordaintzeko 216 eredua, zerga horren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei dagokiena, eta errenta horiek direla- eta egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena egiteko 296 eredua pezetatan eta eurotan onartzen dituena eta 296 ereduak jasotzaileak zerrendatzeko dituen orrien ordez erabiliko den euskarri magnetikoaren diseinu fisiko eta logikoak ontzat hartzen dituena.*

Abenduaren 31ko 738/1999 foru aginduaren bidez onarturik geratu zen Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren atxikipenak eta konturako sarrerak aitortu eta ordaintzeko erabili beharreko 216 eredua, zerga horren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei dagokienez.

Foru agindu horretan xedatutakoaren arabera, 216 ereduan inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako errentei egindako atxikipenak edo konturako sarrerak aitortu behar ziren, besteak beste.

Bere aldetik, otsailaren 9ko 74/2000 foru aginduaren bidez pezetatan eta eurotan onartu zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren atxikipenak, konturako sarrerak eta konturako ordainketa aitortu eta ordaintzeko 117 eredua, inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako errentei dagokienez.

Arrazoi praktikoak direla medio, aitortu eta ordaintzeko obligazioak betetzea zergapekoentzat errazagoa izan zedin, aipatu foru aginduak ez zituen 117 eredutik kanpo utzi Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe arintzean lortutako errentak, eta horrela, arlo horretan halako bateratze bat egin zen eskualdaketa egiten duen edo itzulketa jasotzen duen bazkide edo partaidearen izaera kontuan hartu gabe.

Hori dela-eta, beharrezkoa gertatzen da 216 ereduan zenbait aldaketa egitea inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo

itzultzeagatik lortutako errenten atxikipenak edo konturako sarrerak eredu horretatik kanpo uzteko, aurrerantzean 117 ereduaren bidez aitortu beharko direlako.

Bestalde, foru agindu honen bidez 216 ereduan sartzen diren errentak direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aitortzeko erabiliko den 296 eredua onartzen da. Horrekin bete egingo da apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 30.5 artikuluan xedatutakoa eta maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak, Zerga horren erregelamendua onartzen duenak, 19.2 artikuluan dioena. Izan ere, artikulu horien arabera, atxikitzaileak eta konturako sarrerak egitera behartutakoak egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aurkeztu behar dute urte bakoitzeko azken aitorpenaren epe berean.

Hala 216 eredua nola 296 eredua pezetatan eta eurotan onartzen dira.

Onarturik geratzen dira, halaber, 296 ereduak jasotzaileak zerrendatzeko dituen barne orrien ordez erabiliko diren euskarri magnetikoen baldintzak eta diseinu fisiko eta logikoak.

Maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak 19.5 artikuluan ezartzen duenez, bertan aipatzen diren atxikipenen eta konturako sarreren aitorpenak Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak finkatutako ereduetan, eran eta tokian egingo dira, diputatu horrek erabakitzen duen dokumentazioa aurkeztuta.

Gauzak horrela, hauxe

XEDATU DUT

*1. artikulua.216 eredua pezetatan eta eurotan onartzea.*

*Bat.* Onarturik geratzen da 216 eredua, izenburu hau duena: «Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Aitorpena-ordainketa agiria».

Eredu hori eurotan nahiz pezetatan bete daiteke, eta horretarako foru agindu honetan I. eranskin gisa edo II. eranskin gisa, hurrenez hurren, ageri den 216 eredua erabiliko da.

*Bi.* Bi alez osatuta dago 216 eredua:

a) Aitortzailearen alea.

b) Entitate laguntzailearen alea.

*Hiru.* Foru agindu honetako I. eranskinean ageri den 216 eredua, pezetatan onartua, bertan aipatzen diren errenten atxikipenak eta konturako sarrerak ordaintzeko erabiliko da, oro har. Zergapekoek derrigorrez erabili beharko dute eredu hau, foru agindu honetako II. eranskinean eurotan ageri den 216 eredua erabili ezin dutenean edo, eredu hori erabiltzeko aukera izan arren, aitorpena eurotan egitea aukeratzen ez dutenean, artikulu honetako ondorengo apartatuan xedatutakoaren arabera.

*Lau.* Foru agindu honetako II. eranskinean ageri den 216 eredua, eurotan onartua, zergapekoek erabili ahal izango dute baldin eta merkataritza kontabilitatea (Merkataritza Kodearen edo berariazko legeriaren arabera egina) edo liburu nahiz erregistro fiskalak eramatera behartuta egonik, kontabilitate liburuetako edo zerga araudiak exijitzen dituen erregistro liburuetako oharpenak eurotan adieraztea aukeratu dutenean atxikipenak eta konturako sarrerak egin diren ekitaldi ekonomikoaren lehen egunetik aurrera.

216 eredua eurotan erabiltzeko aukera egin dela ulertuko da zergapekoak egindako atxikipenak eta konturako sarrerak ordaindu behar dituen lehen hiruhilabeteari edo, hala badagokio, hilabeteari buruzko eredu hori aurkezten duenean.

216 eredua eurotan erabiltzea aukeratuz gero, ezin izango da aukera horretan atzera egin, eta zergapekoak aurkeztu beharreko 216 ereduaren aitorpen-ordainketa agiri guztiak hartuko ditu barne, bai eta foru agindu honetako 5. artikuluan onartzen den 296 ereduaren urteko laburpenaren aitorpena ere. Hortik aurrera, pezetatan onartutako 216 eredua edo 296 eredua ezingo dira erabili.

*2. artikulua.216 eredua aurkeztera behartuak.*

*Bat.* Foru agindu honen bitartez onartutako 216 eredua, pezetatan nahiz eurotan onartua, maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak, Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 15. artikuluan aipatutakoaren arabera atxikitzera edo kontura sartzera behartutako zergadunek erabili beharko dute, zerga horren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei egindako atxikipenak eta konturako sarrerak aitortu eta Foru Diruzaintzan ordaintzeko. Salbuetsita geratzen dira inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik atxiki edo konturako sarrerak egin behar dituzten subjektuak, horiek berariazko aitorpen bat egin beharko baitute.

*Bi.* Aurreko bat apartatuan aipatutakoaren arabera atxikitzera edo konturako sarrera egitera behartutako subjektuek 216 eredua erabili beharko dute, baita ere, maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 14. artikuluan xedatutakoagatik atxikipena edo konturako sarrera egin behar ez denean.

Horrelako kasuetan, 216 eredua establezimendu iraunkorrik gabeko ez egoiliarrei ordaindutako errenten kopurua eta zenbatekoa adierazteko aurkeztu beharko da, beti ere aitortzen den zergaldian errenta horiengatik atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez bada. Era berean, hala behar denean, aipatu zergaldian establezimendu iraunkorrik gabeko ez egoiliarrek lortutako etekin eta ondare irabazien kopurua eta zenbatekoa ere adieraziko dira, maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 15. artikuluaren 2 apartatuan xedatutakoari jarraiki.

*Hiru.* Ondorengo errentak ez dira aurreko bi apartatuan aipatutako atxikipenen aitorpen negatiboan sartu beharko:

1.Apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, 13.1.a) artikuluan aipatutako errentak.

2.Establezimendu iraunkorrik gabeko pertsona fisikoek edo entitateek Espainian jaulkitako baloreetatik eratorritako errentak, agente ordaintzaile gisa edo baloreak jaulki edo eskualdatzean bitartekari gisa jarduten diren entitate finantzarioen egoitza edozein izanik ere.

3.Espainiako Bankuak edo atzerriko transakzio ekonomikoen araudian aipatutako entitate erregistratuek Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei ordaintzen dizkieten ez egoiliarren kontuen etekinak.

4.Oharpen bidezko Zor Publikoaren interesak, baldin eta ordainketarako edo atxikipenen itzulketarako prozedura berezi bati lotuta badaude.

5.Maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak 14. artikuluaren 3. apartatuan xedatutakoaren arabera atxiki eta kontura sartzeko obligaziotik salbuetsita dauden errentak.

6.Oinarri ezargarrian sartu gabeko errenten kargura banatzen diren mozkinak, apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, 13. artikuluaren 1 apartatuko i) letran aipatuak.

*3. artikulua.216 eredua aurkeztu eta ordaintzeko tokia.*

*Bat.*Aitorpen positiboak direnean, Zergabilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean aurkeztuko dira (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan).

*Bi.*Aitorpen negatiboak direnean, horiek aurreko bat apartatuan aipatutako entitate laguntzaileetan, Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan nahiz zerga bulegoetan aurkeztu ahal izango dira.

*4. artikulua.216 eredua aurkeztu eta ordaintzeko epea.*

216 ereduaren aurkezpena eta, hala dagokionean, ordainketa apiril, ekain, urri eta urtarrilaren lehen hogeita bost egun naturaletan egingo dira, hurrenez hurren, urte naturalaren lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilabetean egin behar diren atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez.

Edonola ere, atxikitzaileek edo kontura sartzera behartutakoek aurreko urte naturalean izan duten eragiketa bolumena, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legea egokitzekoak, 121. artikuluaren arabera kalkulatua beti ere, mila milioi pezetatik edo 6.010.121,04 eurotik gorakoa izan bada, aurreko paragrafoan aipatutako aitorpena eta ordainketa hil bakoitzaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan egingo dira aurreko lehen hilabeteko atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez. Uztailari dagokion aitorpena eta ordainketa, berriz, abuztuan nahiz irailaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan egingo da.

*5. artikulua.296 eredua pezetatan eta eurotan onartzea.*

*Bat.*Onarturik geratzen da 296 eredua, izenburu hau duena: «Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena».

Eredu hori eurotan nahiz pezetatan bete daiteke, eta horretarako foru agindu honetan III. eranskin gisa edo IV. eranskin gisa, hurrenez hurren, ageri den 296 eredua erabiliko da.

*Bi.*Bi alez osatuta dago 296 eredua:

a)Laburpen orria, bi ale dituena.

b)Jasotzaileen zerrenda orriak, bakoitzak bina ale ere badituena.

*Hiru.*Foru agindu honetako III. Eranskinean ageri den 296 eredua, pezetatan onartua, urteko laburpenean aitortzen den ekitaldiko 216 ereduaren aitorpen-ordainketa agiriak pezetatan aurkeztu dituzten zergapekoek erabili beharko dute foru agindu honetako 1. artikuluaren hirugarren apartatuan xedatutakoaren arabera.

*Lau.*Foru agindu honetako IV. Eranskinean ageri den 296 eredua, eurotan onartua, 216 eredua eurotan erabiltzea aukeratu duten zergapekoek erabili beharko dute, foru agindu honetako 1. artikuluaren laugarren apartatuan xedatutakoaren arabera.

*6. artikulua.296 ereduaren euskarri magnetikoek jarraitu behar dituzten diseinu fisiko eta logikoak onartzea.*

*Bat.*Onarturik geratzen dira 296 ereduaren euskarri magnetikoek jasotzaileen zerrenda orrien ordez aurkezten direnean jarraitu behar dituzten diseinu fisiko eta logikoak, foru agindu honetako V. Eranskinean ageri direnak.

Aipatu euskarri magnetikoak eurotan nahiz pezetatan bete daitezke, zein moneta erabiltzen den horretarako ezartzen diren laukietan adieraziko delarik.

*Bi.*25 jasotzailetik gora duten urteko laburpenak euskarri magnetikoan aurkeztu beharko dira derrigorrez.

Gainerako kasuetan, euskarri magnetikoa aurkeztea aukerakoa izango da.

*Hiru.*Euskarri magnetikoan banakako zein taldekako urteko laburpenak aurkez daitezke. Lehen kasuan, datuak biltzen dituen artxiboak atxikitzaile edo kontura sartzera behartutako baten datuak jasoko ditu, eta bigarrenean, bat baino gehiagorenak.

*Lau.*Ez da beharrezkoa izango aldez aurretik inolako eskaerarik egitea atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena euskarri magnetikoan aurkezteko, banaka izan edo taldeka izan.

*7. artikulua.296 eredua aurkeztera behartuak.*

*Bat.*Maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak, Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 15. artikuluan aipatutakoaren arabera atxikitzera edo kontura sartzera behartutako subjektuek aurkeztu behar dute 296 ereduaren urteko laburpena. Salbuetsita geratzen dira inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik atxiki edo konturako sarrerak egin behar dituztenak, horiek berariazko urteko laburpena aurkeztu beharko baitute.

*Bi.*Maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak 19.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, 296 ereduaren urteko laburpena aurkeztuko dute, halaber, Espainian helbideratuta dauden, bertan egoitza duten edo han ordezkatuta dauden entitateek, baldin eta atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta dauden errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo baloreen errentak gordailatu edo kobratzeaz arduratzen badira.

*8. artikulua.296 ereduko jasotzaileen zerrendaren edukia.*

*Bat.*Maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak 19.2 artikuluan aipatzen duen jasotzaileen zerrenda 296 ereduaren barne orriak erabiliz edo, bestela, aurkezten den euskarri magnetikoari dagozkion erregistroez baliatuz osatuko da.

*Bi.*Aitortzaileak atxikitzera edo kontura sartzera behartuta badaude, beraiek ordaindutako errentak jaso dituztenen datuak adieraziko dira zerrenda horretan, beti ere errenta horiek Zergari lotuta badaude eta horiengatik atxikipena edo konturako sarrera egin behar izan badute edo, atxikipenik nahiz konturako sarrerarik egin behar ez izan arren, atxikipenen aitorpen negatiboa aurkezteko obligazioa baldin badute. Foru agindu honetako 2. artikuluaren hirugarren apartatuan xedatutakoaren arabera atxikipenen aitorpen negatiboa aurkezteko obligaziotik salbuetsita dauden errentak atxikipenen urteko laburpenetik kanpo utziko dira.

*Hiru.*Era berean, Espainian helbideratuta dauden, bertan egoitza duten edo ordezkatuta dauden entitateek atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta dauden errentak besteren kontura ordaintzen dituztenean edo baloreen errentak gordailatu edo kobratzeaz arduratzen direnean, errenta horiek jaso dituztenen datuak adierazi beharko dituzte zerrenda horretan, beti ere haientzat besteren konturako ordaintzaile gisa jardun badute edo errenta horiek gordailatu edo kobratzeaz arduratu badira.

*9. artikulua.296 eredua aurkezteko epea eta tokia.*

*Bat.*Paperezko euskarria erabiliz gero, 296 eredua urte bakoitzeko urtarrilaren lehen hogeita bost egun naturaletan aurkeztuko da, aurreko lehen urtean atxiki eta kontura sartutako zenbatekoei dagokienez.

296 ereduaren inprimakia zerga bulegoetan eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoko Zerga Informatikako Atalean aurkeztu ahal izango da, bai eta Zergabilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean ere (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan).

*Bi.*Euskarri magnetikoa erabiliz gero, 296 eredua urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik otsailaren 20ra bitartean aurkeztuko da, aurreko lehen urtean atxiki eta kontura sartutako zenbatekoei dagokienez.

296 ereduaren euskarri magnetikoa zerga bulegoetan eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoko Zerga Informatikako Atalean aurkeztu ahal izango da, bai eta Zergabilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean ere (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan).

*10. artikulua.296 ereduaren euskarri magnetikoak aurkezteko prozedura.*

*Bat.*Euskarri magnetiko guztiak behin-behineko izaeraz jasoko dira beren prozesaketa egin eta egiaztatuak izan arte. Foru agindu honetan ezarritako diseinu eta bestelako berezitasunekin bat ez datorrenean edo haietan jasotako informaziora iristea ezinezkoa denean, aitortzaileari hamar laneguneko epea emango zaio aurkeztu duen euskarri magnetikoaren akatsak zuzendu ditzan. Egun horiek igaro eta Zerga Administrazioa ezin bada eskatutako datuetara iritsi funtsezko arazoak oraindik hor daudelako, urteko laburpena ez aurkeztutzat joko da ondorio guztietarako, eta zergapekoari horren berri emango zaio.

Segurtasun arrazoiak direla-eta, euskarri magnetikoak ez dira itzuliko espreski eskatzen denean izan ezik. Horrelakoetan, edukia ezabatu ondoren itzuliko dira horiek edo beste batzuk.

*Bi.*Euskarri magnetikoak banakako aurkezpena jasotzen badu, aitortzaileak honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

1.296 ereduaren urteko laburpen orriaren bi aleak, behar bezala beteak eta izenpetuak. Aleak hartu dituen bulegoak zigilatu eta gero, aitortzaileak interesatuaren orria gordeko du beretzat, aurkeztu izanaren zurigarri bezala erabiltzeko.

2.Euskarri magnetikoak etiketa bat eraman beharko du itsatsita kanpoaldean, eta bertan ondoko datu hauek adieraziko dira ordena honetan nahitaez:

a)Ekitaldia.

b)Aurkezpen eredua: 296.

c)Aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).

d)Aitortzailearen deiturak eta izena edo sozietatearen izena.

e)Aitortzailearen helbidea, udalerria eta posta kodea.

f)Harremanetarako pertsonaren deiturak eta izena.

g)Pertsona horren telefonoa eta luzapena.

Datu horiek adierazteko, nahikoa izango da aurreko zerrendaren arabera bakoitzari dagokion letra aurretik jartzea.

Artxiboak euskarri magnetiko bat baino gehiago badu, guztiek sekuentzialki enumeratutako etiketa bana eramango dute era honetara, 1/n, 2/n, etab, «n» hori euskarri kopurua izango delarik. Bigarren eta hurrengo bolumenen etiketan aski izango da aurreko a), b), c) eta d) letretan adierazitako datuak jartzea.

*Hiru.*Euskarri magnetikoak taldekako aurkezpena jasotzen badu, aurkezleak ondoko dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

1.Aurkezleari dagokion laburpen orriaren bi aleak, 296 ereduarenak, behar bezala beteak eta izenpetuak. Aleak hartu dituen bulegoak zigilatu eta gero, aurkezleak interesatuaren alea gordeko du beretzat, aurkeztu izanaren zurigarri bezala erabiltzeko.

2.Zergadun aitortzaile guztiei dagozkien laburpen-orrien bi aleak, 296 ereduarenak, behar bezala beteak eta izenpetuak.

Aleak hartu dituen bulegoak zigilatu eta gero, aurkezleak aitortzaileei dagozkien laburpen orrien interesatuarentzako aleak gordeko ditu beretzat.

3.Euskarri magnetikoak etiketa bat eraman beharko du itsatsita kanpoaldean, eta bertan ondoko datu hauek adieraziko dira ordena honetan nahitaez:

a)Ekitaldia.

b)Aurkezpen eredua: 296.

c)Aurkezlearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).

d)Aurkezlearen deiturak eta izena edo sozietatearen izena.

e)Aurkezlearen helbidea, udalerria eta posta kodea.

f)Harremanetarako pertsonaren deiturak eta izena.

g)Pertsona horren telefonoa eta luzapena.

Datu horiek adierazteko, nahikoa izango da aurreko zerrendaren arabera bakoitzari dagokion letra aurretik jartzea.

Artxiboak euskarri magnetiko bat baino gehiago dituenean, guztiek sekuentzialki enumeratutako etiketa bana eramango dute era honetara, 1/n, 2/n, etab, «n» horrek euskarri kopurua adieraziko duelarik. Bigarren eta hurrengo bolumenen etiketan aski izango da aurreko a), b), c) eta d) letretan adieazitako datuak jartzea.

*11. artikulua.Dokumentazioa.*

Urtarrilaren 31ko Zergen Foru Arau Orokorrak 64. artikuluan aipatzen duen preskripzio epeak dirauen bitartean, 296 ereduaren urteko laburpena aukeztera behartuta daudenek Zerga Administrazioaren esku eduki beharko dituzte egindako atxikipenen edo konturako sarreren frogagiriak.

Ondorio horietarako, barruko araudian jasotako salbuespenen aplikazioagatik atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez denean zergadunaren egoitza kontuan hartu delako, egoera hori zergaduna bizi den herrialdeko agintari fiskalek emandako egoitza agiriarekin frogatu beharko da.

Bere aldetik, atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez denean ezarpen bikoitza saihesteko Espainiak izenpetu duen Hitzarmenean jasotako salbuespenak aplikatu direlako edo, bestela, atxikipena edo konturako sarrerak hitzarmen horretan finkatutako mugekin aplikatu direnean, egoera hori agiri hauetako bat aurkeztuz frogatuko da:

a)Egoitza ziurtagiria, zerga alorreko agintariak luzatua. Bertan espreski adierazi beharko da errenta jasotzen duen zergaduna Hitzarmenean zehaztutako zentzuan dela egoiliarra.

b)Murrizpen edo salbuespenari buruzko formularioa, baldin eta aplikagarri den Hitzarmenak garapen agindu bat badu.

Aurreko paragrafoetan aipatu diren egoitza ziurtagiriek urtebeteko balioa izango dute ematen diren egunetik aurrera.

Atxikipen edo konturako sarrerarik ez bada egin Zerga ordaindu egin delako, hori frogatzeko modua zergadunak edo bere ordezkariak Zerga hori dela-eta aurkeztu duen aitorpena izango da.

*12. artikulua.296 ereduaren bidez informazioa ematean aplikatu beharreko erregela bereziak.*

Pezetatan edo eurotan onartutako 296 ereduaren bidez aitortu beharreko errenten sorburu den ondare elementuak -ondasun edo eskubideak- titular bat baino gehiago badu, eta 296 ereduan informazioa

ematearen ondorioetarako soil-soilik, zergapekoek modu indibidualizatuan adierazi beharko dituzte ondare elementu horren -ondasun edo eskubidearen- kotitular bakoitzari dagozkion datu ekonomikoak. Indibidualizazio hori ondare elementuaren -ondasun edo eskubidearen- kotitular bakoitzak duen partaidetzaren arabera egingo da, beti ere zergapekoak partaidetza horren froga nabarmena badu. Froga nabarmenik ezean, partaidetzaren proportzioa zati berdinetan egotziko zaie kotitularrei, aipatu informazioaren ondorioetarako.

*Lehen Xedapen Gehigarria. Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun izaera frogatzea ez egoiliarren kontuen ondorioetarako.*

Apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, 13.1.e) artikuluan aipatzen dituen ez egoiliarren kontuen etekinak atxikitzeko obligazioari salbuespena aplikatzearen ondorio hutsetarako, esan behar da foru arau horren 5. artikuluan definitu ez diren zergadun ez egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituztenean Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan salbuetsita dauden errentak eta errenta horiek Espainiako Bankuak edo atzerriko transakzio ekonomikoei buruzko araudian aipatutako entitate erregistratuek ordainduak direnean, ez egoiliarrak direla frogatu beharko diete entitate horiei. Horretarako, aitorpen bat aurkeztu beharko dute eta bertan adierazi beren zerga egoitza beste estatu batean dutela 5. artikuluan esandakoaren arabera, eta Espainian ez dutela establezimendu iraunkorrik. Era berean, zirkunstantzia horietan aldaketaren bat gertatuz gero entitate horiei haren berri emateko konpromisoa hartzen dutela adieraziko dute.

Aurreko paragrafoan aipatu den aitorpena foru agindu honen VI. Eranskinean ageri den ereduari jarraiki egingo da, eta entitateari hilabeteko epean aurkeztu beharko zaio kontua irekitzen denetik hasita. Aitorpen eredu hori erabiliko da, halaber, aurrez aitortutako edozein zirkunstantziaren aldaketak entitateei jakinarazteko.

Xedapen honetan aipatzen den aitorpenak bi urteko balioa izango du, non eta, epe hori amaitu baino lehen, aitortutako zirkunstantzietan aldaketaren bat ez den gertatzen eta dagokion entitateari haren berri ematen ez zaion. Kasu horretan, aitorpenak une horretatik aurrera galdu du bere balioa.

Urtarrilaren 31ko 1/1985 Zergen Foru Arau Orokorrak 64. artikuluan aipatzen duen preskripzio epeak dirauen bitartean, aurreko lehen paragrafoan aipatu diren entitateek Zerga Administrazioaren esku gorde beharko dituzte esandako aitorpen horiek eta haien euskarri diren dokumentuak.

Aurrekoa eragotzi gabe, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun izaera dagokion entitateari frogatzeko, zergaduna bizi den herrialdeko agintari fiskalek emandako ziurtagiria aurkeztu ahal izango da.

*Bigarren Xedapen Gehigarria. Ez egoiliarrei ondasun higiezinak erostean egindako atxikipena aitortu eta ordaintzea.*

Apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, 24. artikuluaren 2. apartatuan aipatzen duen atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dauden erosleek ez egoiliarrei ondasun higiezinak erosten dizkietenean, martxoaren 20ko 192/1997 Foru Aginduan onartutako 211 eredua erabili beharko dute atxikipena edo konturako sarrera aurkeztu eta ordaintzeko. Beraz, foru agindu honetan onartzen den 216 eredua ez da aplikagarria izango.

*Amaierako Xedapena.*

*Bat.*Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

*Bi.*Foru agindu honetan onartutako ereduak eta diseinu fisiko eta logikoak lehen aldiz erabiliko dituzte zergapekoek, arau hauei jarraiki:

1.Foru agindu honetako 4. artikuluaren bigarren paragrafoan aipatutako zergapekoek 2001. urteko urtarrilean egindako atxikipenak eta konturako sarrerak ordaintzeko erabiliko dute, lehen aldiz, foru agindu honetako I. eta II. eranskinetan, hurrenez hurren, pezetatan eta eurotan onartu den 216 eredua.

Gainerako zergapekoek, ordea, 2001. urteko lehen hiruhilekoan egindako atxikipenak eta konturako sarrerak ordaintzeko erabiliko dute eredu hau.

2.Foru agindu honetako III. Eranskinean ageri den 296 eredua, pezetatan onartua, eta V. Eranskinean ageri den euskarri magnetikoa, pezetatan adierazia, 2000. urteko atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena egiteko.

3.Foru agindu honetako IV. Eranskinean ageri den 296 eredua, eurotan onartua, eta V. Eranskinean ageri den euskarri magnetikoa, eurotan adierazia, 2001. urteko atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena egiteko erabiliko dira lehen aldiz.

Donostia, 2001eko urtarrilaren 24a.—Antton Marquet Artola, Ogasuneko eta Finantzetako Foru Diputatua.

(786) (985)

I. ERANSKINA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas
www.gipuzkoa.net/ogasuna

"0400012812001"

***Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga***
**Impuesto sobre la Renta de no Residentes**
***Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako etekinak***
**Rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanentes**

***ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK***
**RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA**

***Aitorpena-ordainketa agiria* / Declaración-documento de ingreso**

| *Ekitaldia* Ejercicio | *Epealdia* Periodo |
|---|---|

# 216

## *IDENTIFIKAZIOA* / IDENTIFICACIÓN

| *NA edo IFK* / DNI ó CIF | *Deiturak eta izena edo sozietatearen izena* / Apellidos y nombre ó razón social |
|---|---|
| | |

| *Helbidea: kalea edo plaza* / Domicilio: calle o plaza | *Zk./Núm.* | *Esk./Esc.* | *Oina/Piso* | *Aldea/Mano* | *Telefonoa/Teléfono* |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |

| *Udalerria/Municipio* | *Posta kod./Cód. postal* | *Probintzia/Provincia* |
|---|---|---|
| | | |

## *ATXIKIPENAK* / RETENCIONES

| | *Errenta kop.* Nº de rentas | | *Zenbatekoa* Importe | | *Atxikipenak* Retenciones | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *DIRUZKO ERRENTAK* RENTAS DINERARIAS | 01 | | 02 | | 03 | |

## *KONTURAKO SARRERAK* / INGRESOS A CUENTA

| | *Errenta kop.* Nº de rentas | | *Zenbatekoa* Importe | | *Konturako sarrerak* Ingresos a cuenta | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *GAUZEN BIDEZKO ERRENTAK* RENTAS EN ESPECIE | 04 | | 05 | | 06 | |

## *ATXIKIPENIK EDO KONTURAKO SARRERARIK GABEKO ERRENTAK*
## RENTAS NO SOMETIDAS A RETENCIÓN O INGRESO A CUENTA

| | *Errenta kop.* Nº de rentas | | *Zenbatekoa edo balioa* Importe o valor | |
|---|---|---|---|---|
| *DIRUZKO ERRENTAK* RENTAS DINERARIAS | 07 | | 08 | |
| *GAUZEN BIDEZKO ERRENTAK* RENTAS EN ESPECIE | 09 | | 10 | |

*ORDAINDU BEHARREKOA*
*A INGRESAR* ..... 03 + 06 ..... 11

*Tokia eta data*
Lugar y fecha .....

*Aitortzailearen sinadura*
Firma del declarante

*Administrazioarentzako Alea* / Ejemplar para la Administración

*Zergadunen arreta zerbitzua:*
** Telefonoa (9:00 - 13:00): 943 483 040*
** Internet: www.gipuzkoakoogasuna/renta/*

## *216 EREDUA* ***BETETZEKO JARRAIBIDEAK***

### *216 EREDUA AURKEZTERA BEHARTUAK*

*216 eredua ondoko* ***hauek*** *aurkeztuko dute, beti ere establezimendu iraunkorrik gabeko Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei errentak ordaintzen badizkiete:*

- *Espainiako lurraldean egoitza duten entitateek, egozpen erregimenekoak barne.*
- *Espainiako lurraldean egoitza duten pertsona fisikoek, ekonomia jarduerak egiten dituztenean eta horiengatik errentak ordaintzen dituztenean.*
- *Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek.*
- *Aktibo finantzarioen eragiketetan eta Zor Publikoaren eskualdaketetan, PFEZren araudian xedatutakoaren arabera atxikitzera edo kontura sartzera behartuta daudenek.*
- *Sarien kasuan, ordaintzen dituen pertsona edo entitateak.*

*Aitorpena bakarra izango da atxikitzaile edo konturako sarrerak egin behar dituen pertsona bakoitzeko. Bertan, aitortutako epealdian ordaindu diren EEEZri lotutako errenten gaineko atxikipen eta konturako sarrera guztiak azalduko dira. Halere, ez dira eredu honetan sartuko:*

- *Inbertsio kolektiboko kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzen eskualdaketa nahiz itzulketetan lortutako errentak. (117 eredua)*
- *Ondasun higiezinak eskuratzean egin beharreko atxikipena edo konturako sarrera. (211 eredua)*

### *ATXIKIPENAK: DIRUZKO ERRENTAK*

*01* ***Errenta kop.:*** *adierazi* ***hemen*** *aitortzaileari atxikitzeko obligazioa sortzen dioten errenten kopurua.*

*02* ***Zenbatekoa:*** *adierazi* ***hemen*** *aurreko laukian aitortutako errentei dagozkien atxikipen oinarrien batura.*

*03* ***Atxikipenak:*** *adierazi* ***hemen*** *diruzko errentei dagozkien atxikipenen zenbateko osoa.*

### *KONTURAKO SARRERAK: GAUZEN BIDEZKO ERRENTAK*

*04* ***Errenta kop.:*** *adierazi hemen aitortzaileari konturako sarrerak egiteko obligazioa sortzen dioten errenten kopurua.*

*05* ***Zenbatekoa:*** *adierazi hemen aurreko laukian aitortutako errentei dagozkien konturako sarrerak egiteko oinarrien batura.*

*06* ***Konturako sarrerak:*** *adierazi hemen gauzen bidezko errentengatik egin beharreko konturako sarreren zenbateko osoa.*

### *ATXIKIPENIK EDO KONTURAKO SARRERARIK GABEKO ERRENTAK*

*Eredu hau aurkeztu beharko da, halaber, zergaren araudia edo ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmenen bat aplikatzeagatik atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar ez denean, salbu eta eredua onartzen duen aginduak espreski adierazten dituen kasuetan.*

*07 eta 09* ***Errenta kop.:*** *adierazi* ***hemen*** *zenbat diren zergari lotuta egonik, atxikipenik eta konturako sarrerarik ez duten errentak.*

*08 eta 10* ***Zenbatekoa edo balioa:*** *adierazi hemen aurreko laukitan aitortutako diruzko errenten zenbatekoa edo gauzen bidezko errenten balioa.*

### *AURKEZTEKO EPEA*

***Hiruhileko aitorpena:*** *apiril, uztail, urri eta urtarrilaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan, aurreko lehen hiruhileko naturalean egindako atxikipen eta konturako sarrerengatik.*

***Hileko aitorpena (enpresa handiak):*** *aitortu behar den hilabetea amaitu eta hurrengo hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalen barruan egingo da aurkezpena. Uztailari dagokiona, berriz, abuztuan zehar eta irailaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztuko da.*

Servicio de atención al contribuyente:
* Teléfono (de 09:00 a 13:00 horas): 943 483 040
* Internet: www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta/

## INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR EL MODELO 216

### OBLIGADOS A PRESENTAR EL MODELO 216

Están obligados a presentar el modelo 216 cuando hayan satisfecho rentas a contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes sin establecimiento permanente:

- Las entidades, incluidas las entidades en régimen de atribución, residentes en territorio español.
- Las personas físicas residentes en territorio español que realicen actividades económicas, cuando satisfagan o abonen dichas rentas en el ejercicio de su actividad.
- Los contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes.
- En las operaciones sobre activos financieros y en las transmisiones de valores de Deuda Pública, los sujetos obligados a retener o ingresar a cuenta de acuerdo con lo establecido en la normativa del IRPF.
- En el caso de premios, la persona o entidad que los satisfaga.

La declaración será única para cada retenedor u obligado a ingresar a cuenta y comprenderá la totalidad de las retenciones e ingresos a cuenta del IRNR correspondientes a las rentas satisfechas en el periodo objeto de la declaración. Sin embargo, no deberán incluirse en este modelo:

- Las rentas obtenidas en la transmisión o reembolso de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de instituciones de inversión colectiva. (modelo 117)
- La retención o ingreso a cuenta a efectuar en las adquisiciones de bienes inmuebles. (modelo 211)

### RETENCIONES: RENTAS DINERARIAS

**01 Nº de rentas:** se consignará el número total de rentas sobre las que el declarante tenga obligación de retener.

**02 Importe:** se consignará la suma total de las bases de retención correspondientes a las rentas declaradas en la casilla anterior.

**03 Retenciones:** se consignará el importe total de las retenciones que correspondan a las rentas dinerarias.

### INGRESOS A CUENTA: RENTAS EN ESPECIE

**04 Nº de rentas:** se consignará el número total de rentas sobre las que el declarante tenga obligación de ingresar a cuenta.

**05 Importe:** se consignará la suma total de las bases para efectuar el ingreso a cuenta, correspondientes a las rentas en especie declaradas en la casilla anterior.

**06 Ingresos a cuenta:** se consignará el importe total de los ingresos a cuenta que corresponda efectuar.

### RENTAS NO SOMETIDAS A RETENCIÓN O INGRESO A CUENTA

Este modelo también deberá presentarse, salvo en los supuestos que expresamente se exceptúan en la orden que aprueba este modelo, en los casos en que de acuerdo con la normativa del impuesto o en virtud de lo dispuesto en un convenio para evitar la doble imposición no proceda practicar retención o ingreso a cuenta.

**07 y 09 Nº de rentas:** se consignará el número total de rentas sujetas al impuesto y exceptuadas de retención o ingreso a cuenta.

**08 y 10 Importe o valor:** se consignará el importe de las rentas dinerarias o el valor de las retribuciones en especie correspondientes a las rentas declaradas en las casillas anteriores.

### PLAZO DE PRESENTACIÓN

**Declaración trimestral:** durante los veinticinco primeros días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero, por las retenciones e ingresos a cuenta que correspondan al trimestre natural inmediato anterior.

**Declaración mensual (grandes empresas):** durante los veinticinco primeros días naturales del mes siguiente al periodo de declaración mensual que corresponda, excepto el correspondiente al mes de julio, que se presentará durante el mes de agosto y los veinticinco primeros días naturales del mes de septiembre inmediatamente posterior.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas
www.gipuzkoa.net/ogasuna

*8401012812001*

*Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga*
**Impuesto sobre la Renta de no Residentes**
*Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako etekinak*
**Rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanentes**

*ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK*
**RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA**

*Aitorpena-ordainketa agiria* / **Declaración-documento de ingreso**

# 216

| *Ekitaldia* Ejercicio | *Epealdia* Periodo |
|---|---|
| | |

## *IDENTIFIKAZIOA* / IDENTIFICACIÓN

| *NA edo IFK* / DNI ó CIF | *Deiturak eta izena edo sozietatearen izena* / Apellidos y nombre ó razón social |
|---|---|
| | |

| *Helbidea: kalea edo plaza* / Domicilio: calle o plaza | *Zk./Núm.* | *Esk./Esc.* | *Oina/Piso* | *Aldea/Mano* | *Telefonoa/* Teléfono |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |

| *Udalerria/* Municipio | *Posta kod.* / Cód. postal | *Probintzia/* Provincia |
|---|---|---|
| | | |

## *ATXIKIPENAK* / RETENCIONES

| | *Errenta kop.* Nº de rentas | | *Zenbatekoa* Importe | | *Atxikipenak* Retenciones | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *DIRUZKO ERRENTAK* RENTAS DINERARIAS | 01 | | 02 | | 03 | |

## *KONTURAKO SARRERAK* / INGRESOS A CUENTA

| | *Errenta kop.* Nº de rentas | | *Zenbatekoa* Importe | | *Konturako sarrerak* Ingresos a cuenta | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *GAUZEN BIDEZKO ERRENTAK* RENTAS EN ESPECIE | 04 | | 05 | | 06 | |

## *ATXIKIPENIK EDO KONTURAKO SARRERARIK GABEKO ERRENTAK*
## RENTAS NO SOMETIDAS A RETENCIÓN O INGRESO A CUENTA

| | *Errenta kop.* Nº de rentas | | *Zenbatekoa edo balioa* Importe o valor | |
|---|---|---|---|---|
| *DIRUZKO ERRENTAK* RENTAS DINERARIAS | 07 | | 08 | |
| *GAUZEN BIDEZKO ERRENTAK* RENTAS EN ESPECIE | 09 | | 10 | |

*ORDAINDU BEHARREKOA*
*A INGRESAR* ..... 03 + 06 ..... 11

*Tokia eta data*
Lugar y fecha .....

*Aitortzailearen sinadura*
Firma del declarante

*Administrazioarentzako Alea* / Ejemplar para la Administración

*Zergadunaren arreta zerbitzua:*
** Telefonoa (9:00 - 13:00): 943 483 040*
** Internet: www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta/*

## *216 EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK*

*Zenbatekoak eurotan jartzen badira, laukiak bi dezimalekin beteko dira kasu guztietan.*

### *216 EREDUA AURKEZTERA BEHARTUAK*

*216 eredua ondoko hauek aurkeztuko dute, beti ere establezimendu iraunkorrik gabeko Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei errentak ordaintzen badizkiete:*

- *-Espainiako lurraldean egoitza duten entitateek, egozpen erregimenekoak barne.*
- *-Espainiako lurraldean egoitza duten pertsona fisikoek, ekonomia jarduerak egiten dituztenean eta horiengatik errentak ordaintzen dituztenean.*
- *-Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek.*
- *-Aktibo finantzarioen eragiketetan eta Zor Publikoaren eskualdaketetan, PFEZren araudian xedatutakoaren arabera atxikitzera edo kontura sartzera behartuta daudenek.*
- *-Sarien kasuan, ordaintzen dituen pertsona edo entitateak.*

*Aitorpena bakarra izango da atxikitzaile edo konturako sarrerak egin behar dituen pertsona bakoitzeko. Bertan, aitortutako epealdian ordaindu diren EEEZri lotutako errenten gaineko atxikipen eta konturako sarrera guztiak azalduko dira. Halere, ez dira eredu honetan sartuko:*

- *-Inbertsio kolektiboko kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzen eskualdaketa nahiz itzulketetan lortutako errentak. (117 eredua)*
- *-Ondasun higiezinak eskuratzean egin beharreko atxikipena edo konturako sarrera. (211 eredua)*

### *ATXIKIPENAK: DIRUZKO ERRENTAK*

***01 Errenta kop.:*** *adierazi hemen aitortzaileari atxikitzeko obligazioa sortzen dioten errenten kopurua.*
***02 Zenbatekoa:*** *adierazi hemen aurreko laukian aitortutako errentei dagozkien atxikipen oinarrien batura.*
***03 Atxikipenak:*** *adierazi hemen diruzko errentei dagozkien atxikipenen zenbateko osoa.*

### *KONTURAKO SARRERAK: GAUZEN BIDEZKO ERRENTAK*

***04 Errenta kop.:*** *adierazi hemen aitortzaileari konturako sarrerak egiteko obligazioa sortzen dioten errenten kopurua.*
***05 Zenbatekoa:*** *adierazi hemen aurreko laukian aitortutako errentei dagozkien konturako sarrerak egiteko oinarrien batura.*
***06 Konturako sarrerak:*** *adierazi hemen gauzen bidezko errentengatik egin beharreko konturako sarreren zenbateko osoa.*

### *ATXIKIPENIK EDO KONTURAKO SARRERARIK GABEKO ERRENTAK*

*Eredu hau aurkeztu beharko da, halaber, zergaren araudia edo ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmenen bat aplikatzeagatik atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar ez denean, salbu eta eredua onartzen duen aginduak espreski adierazten dituen kasuetan.*
***07 eta 09 Errenta kop.:*** *adierazi hemen zenbat diren zergari lotuta egonik, atxikipenik eta konturako sarrerarik ez duten errentak.*
***08 eta 10 Zenbatekoa edo balioa:*** *adierazi hemen aurreko laukitan aitortutako diruzko errenten zenbatekoa edo gauzen bidezko errenten balioa.*

### *AURKEZTEKO EPEA*

***Hiruhileko aitorpena:*** *apiril, uztail, urri eta urtarrilaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan, aurreko lehen hiruhileko naturalean egindako atxikipen eta konturako sarrerengatik.*
***Hileko aitorpena (enpresa handiak):*** *aitortu behar den hilabetea amaitu eta hurrengo hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalen barruan egingo da aurkezpena. Uztailari dagokiona, berriz, abuztuan zehar eta irailaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztuko da.*

Servicio de atención al contribuyente:
* Teléfono (de 09:00 a 13:00 horas): 943 483 040
* Internet: www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta/

## INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR EL MODELO 216

Las casillas de importes en euros deberán rellenarse en todos los casos con dos decimales.

### OBLIGADOS A PRESENTAR EL MODELO 216

